

## NOTA DE PRENSA

---

# GLORIA VÁZQUEZ PRESENTA LOS CINCO PRIMEROS DE SU CANDIDATURA JOVEN E ILUSIONANTE PARA LIDERAR EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

La candidata a la alcaldía, Gloria Vázquez, ha presentado este mediodía los cinco primeros miembros de la candidatura con la que acude a las próximas elecciones del 28 de mayo. “Estas elecciones son un reto que afronto con compromiso, trabajo e ilusión”, ha dicho y además lo hace acompañada por un “gran” equipo “comprometido con Zarautz y con el Partido Socialista”. Ha explicado que los socialistas durante “mucho” tiempo “no lo han tenido fácil” porque para conseguir candidatos para ocupar los primeros puestos de la lista del PSE-EE por la amenaza terrorista. Lo que era una “anomalía democrática”.

Sin embargo, “los tiempos han cambiado” y para conformar esta candidatura “no ha habido problemas”. Al contrario, tanto Inaxio Illarramendi, como Carmen Fernández decidieron afiliarse a las juventudes socialistas hace un par de años y participar en el proyecto del PSE-EE en Zarautz”. Son dos de las personas “más jóvenes” de la lista, que “no han dudado” en dar un paso al frente y aceptar la responsabilidad de ir en los primeros puestos de la candidatura, junto Aritz Landaburu y Arantza Zubizarreta.

Además, los nuevos se incorporan a una candidatura donde hay otros perfiles de hombres y mujeres “más experimentados” y que son conocedores de la política local. Todos, -ha dicho con orgullo-, los que componen la lista son “los mejores, hombres y mujeres que van a trabajar para dar lo mejor de sí con el objetivo de liderar la próxima legislatura”.

Las personas que componen los primeros puestos de la candidatura son las siguientes:

### 1.- GLORIA VÁZQUEZ

### 2.- INAXIO ILLARRAMENDI

Iñaxio Illarramendi, de 24 años, es el segundo de nuestra candidatura. Tiene un doble grado en ADE y Derecho por la Universidad de Deusto y actualmente trabaja como asesor en el departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Un joven formado y entusiasta, que se nos acercó para decirnos que quería afiliarse y que se siente orgulloso y decidido a ser concejal. Seguro que en su entorno más cercano se sintieron extrañados por su decisión, pero él lo tiene muy claro. Lo que es una señal inequívoca de normalización política entre la juventud.

### 3.- ARANTZA ZUBIZARRETA

Arantza Zubizarreta es una mujer muy conocida en Zarautz, que ha contribuido a la formación de varias generaciones de zarautzarras desde las aulas del Instituto Lizardi. Es licenciada en Historia Contemporánea por la Universidad de Deusto. Ha sido profesora de Historia, Geografía

---

### Oficina de Prensa

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

[prensa@socialistasguipuzcoanos.com](mailto:prensa@socialistasguipuzcoanos.com)

y Arte en el Instituto Lizardi, en el que también llegó a ser la Directora y coordinadora de estudios, durante los 39 años de su trabajo profesional.

#### 4.- **ARITZ LANDABURU**

Aritz Landaburu es otro zarauztarra de pro. Periodista de profesión, Landaburu es otra nueva incorporación que se ha sumado a nuestra agrupación y está dispuesto a ser concejal. Licenciado en Humanidades y Comunicación por la Universidad de Deusto y tiene un postgrado de periodismo deportivo por la Universidad Internacional de Catalunya. Tiene una dilatada trayectoria profesional en Radio Euskadi cubriendo la actualidad cultura y en Cristóbal Balenciaga Museoa. En la actualidad trabajo como responsable de prensa de la diputada de Cultura, Cooperación Internacional, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### 5.- **CARMEN FERNÁNDEZ**

En quinto lugar, nos acompaña Carmen Fernández, la más joven de la candidatura con 18 años. Una chica decidida y valiente, que habla varios idiomas. Actualmente está cursando enfermería en la Universidad de Deusto. Trabaja en la gestión y recepción de complejos vacacionales de Francia durante sus vacaciones.

Zarautz, 31 de marzo de 2023

## PRENTSA-OHARRA

# **GLORIA VÁZQUEZEK ZARAUZKO UDALA ZUZENTZEKO HAUTAGAITZA GAZTE ETA ILUSIONAGARRIKO LEHEN BOST HAUTAGAIK AURKEZTU DITU**

Gloria Vázquez alkategaiak datorren maiatzaren 28ko hauteskundeetarako hautagaitzako lehen bost kideak aurkeztu ditu gaur eguerdian. Adierazi duenez, “hauteskunde hauek erronka handia dira, eta konpromisoarekin, lanarekin eta ilusioarekin egingo diot aurre erronka horri”. Horretarako, gainera, “Zarautzekin eta Alderdi Sozialistarekin konprometitutako” talde “handia” izango du ondoan. Azaldu duenez, “luzaroan”, mehatxu terrorista dela eta, sozialistentzat “ez da batere erraza izan” PSE-EEko zerrendako lehen postuak betetzeko hautagaiak lortzea. Egoera hori “anomalía demokratiko” bat zen.

Orain, ordea, “beste garai batean gaude”, eta “ez da arazorik egon” hautagaitza osatzeko. Inaxio Illarramendik eta Carmen Fernándezek duela bi urte erabaki zuten Gazte Sozialistak erakundean afiliatzea eta Zarauzko PSE-EEren proiektuan parte hartzea. Zerrendako pertsonarik “gazteenetako” bi dira, eta “ez dute zalantzarik izan” aurrera egiteko eta, Aritz Landabururekin eta Arantza Zubizarretarekin batera, hautagaitzako lehen postuetan sartzeak dakarren erantzukizuna onartzeko garaian

---

**Oficina de Prensa**

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

[prensa@socialistasguipuzcoanos.com](mailto:prensa@socialistasguipuzcoanos.com)

Gainera, “esperientzia handiagoa” duten eta tokiko politika ongi ezagutzen duten beste gizon eta emakume batzuez osatutako hautagaitza batean sartuko dira berriak. Harro adierazi duenez, zerrenda osatzen duten guztiak “hurrengo legegintzaldia zuzentzeko helburuarekin duten onena emateko lan egingo duten gizon eta emakumerik onenak dira”.

Hona hemen hautagaitzako lehen postuetan egongo diren pertsonak:

#### **1.- GLORIA VÁZQUEZ**

#### **2.- INAXIO ILLARRAMENDI**

Inaxio Illaramendi, 24 urtekoa, gure hautagaitzako bigarrena da. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitza du Deustuko Unibertsitatean, eta, gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuan lan egiten du aholkulari gisa.

Ongi prestatutako gazte gogotsu hau afiliatzeko asmoa zuela eta zinegotzia izateaz harro eta seguru sentitzen zela esateko hurbildu zitzaigun. Seguruenik, haren hurbilekoak harrিতa geratuko ziren hartu zuen erabakiarekin, baina Inaxiok oso garbi ditu gauzak. Eta gazteen arteko normalizazio politikoaren seinale nabarmena da hori.

#### **3.- ARANTZA ZUBIZARRETA**

Arantza Zubizarreta oso emakume ezaguna da Zarautzen; izan ere, zarautzarren hainbat belaunaldi prestatu ditu Lizardi Institutuko ikasgeletan. Historia Garaikideko lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean. Bere 39 urteko lan profesionalaren barruan, historiako, geografiako eta arteko irakaslea izan da Lizardi Institutuan, eta bertako zuzendaria eta ikasketa-koordinatzailea ere izan zen.

#### **4.- ARITZ LANDABURU**

Aritz Landaburu beste zarautzar zintzo bat da. Kazetaria da lanbidez, eta gure taldearekin bat egin duen eta zinegotzia izateko prest dagoen beste kide berrietako bat da. Giza Zientzietako eta Komunikazioko lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta kirol-kazetaritzako graduondo bat egin du Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatean. Ibilbide profesional luzea egin du Radio Euskadin (kulturaren atalean) eta Cristóbal Balenciaga Museoa. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kiroletako diputatuaren prentsa-arduraduna da.

#### **5.- CARMEN FERNÁNDEZ**

Bosgarren tokian, Carmen Fernández dugu, hautagaitzako gazteena, 18 urterekin. Neska ausarta eta erabakitasun handikoa da, eta zenbait hizkuntzatan hitz egiten du. Gaur egun, erizaintza ikasten ari da Deustuko Unibertsitatean. Oporraldian, kudeaketa- eta harrera-lanak egiten ditu Frantziako hainbat oporgunetan.

Zarautz, 2023ko martxoaren 31

---

**Oficina de Prensa**

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

[prensa@socialistasguipuzcoanos.com](mailto:prensa@socialistasguipuzcoanos.com)